



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko ekainaren 23a

65. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Museoei buruzko Foru Lege proiektua. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).
- Hirigintza eta etxebizitzaren arloan urgentziazko neurriak hartzeko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legea. Akats zuzenketa (16. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzkoa. Akats zuzenketa (16. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mendekotasuna duten pertsonen laguntzarako 2007ko eta 2008ko ekitaldietan gastatutako eta 2009ko ekitaldirako aurrekontuan sartutako zenbateko zehatzak ezar ditzan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro ere ekin diezaien sindikatuen eta Hezkuntza Departamentuaren arteko negoziazioei, 2008ko ekainaren 3an izenpetutako ituna garatzen eta betetzen lagunduko duen akordio bat lortze aldera. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur nafarren ikusmen arazoak hautemateari buruzko neurri jakin batzuk har ditzan. Osasun Batzordeak bazter utzia (20. or.).
- Adierazpen instituzionala, polizia nazionalako inspektore Eduardo Antonio Puelles García jaunaren erailketaren erabateko gaitzespena adierazteko. Eledunen Batzarrak onetsia (20. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, erregaiei eta tabakoari buruzko zergen igoerak Nafarroako Foru Komunitatean izanen duen eraginari buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (21. or.).
- Galdera, N-121-A errepideko lanak amaitzeko datari buruzkoa, Koldo Amezketa Díaz jaunak egina (21. or.).

—Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak beharrezkoa ikusten ote duen parte hartzea hondakinak tratatzen duten enpreetan hondakinen kudeaketa kontrolatu ahal izateko, Ana Figueras Castellano andreak egina (22. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Lan-taldea, Nafarroako Foru Komunitateko bide publikoak bizikletek erabiltzeko egokitzea aztertzea. Barne-funtzionamendurako arauak (23. or.).

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

## Museoei buruzko Foru Lege proiektua.

### *VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak Museoei buruzko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori 2009ko apirilaren 24ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **IRIZPENA**

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak 2009ko ekainaren 9an eta 17an eginiko bileretan onetsia

### **Museoei eta Nafarroako Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko Foru Lege proiektua**

#### AURKIBIDEA

#### ZIOEN AZALPENA

#### I. TITULUA.

#### Xedapen orokorrak

1. artikulua. Foru legearen xedea eta esparrua.
2. artikulua. Museoa zer den.
3. artikulua. Museoen eginkizunak.
4. artikulua. Bilduma museografiko iraunkorra zer den.
5. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenak.
5. bis artikulua. Nafarroako toki entitateen eskumenak.
6. artikulua. Diagnostikoa eta plangintza.

7. artikulua. Nafarroako Kulturaren Kontseilua.

8. artikulua. Lankidetzaren printzipioa.

#### II. TITULUA

#### Nafarroako Museoen Sistema

9. artikulua. Definizioa.

10. artikulua. Osaera.

11. artikulua. Helburuak.

12. artikulua. Nafarroako Museoen Sisteman sarztearen ondorioak.

#### III. TITULUA

#### Museoen eta bilduma museografiko iraunkorren araubide orokorra

#### I. KAPITULUA

#### Museoen eta bilduma museografiko iraunkorren aitortpena

13. artikulua. Museo gisa aitortua izateko betebeharrak.

14. artikulua. Bilduma museografiko iraunkor gisa aitortua izateko betebeharrak.

15. artikulua. Museoen eta bilduma museografiko iraunkorren aitortpena.

16. artikulua. Izena.

16. bis artikulua. Museoak eta bilduma museografikoak desegitea.

#### II. KAPITULUA

#### Museoen eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Erregistroa

17. artikulua. Nafarroako Museoen eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Erregistroa.

#### III. KAPITULUA

#### Museoen eta bilduma museografiko iraunkorren kudeaketa

18. artikulua. Museoen eta bilduma museografiko iraunkorren titularren eginbehar orokorrak.

19. artikulua. Erregistro liburuak.
20. artikulua. Funtsen inbentarioa.
21. artikulua. Funtsen Inbentario Orokorra.
22. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasunekoak diren Nafarroako Kultur Ondareko ondasunen gordailuak.
23. artikulua. Beste batzuen titulartasunekoak diren Nafarroako Kultur Ondareko ondasunen gordailuak.
24. artikulua. Kopiak, erreprodukzioak eta digitalizazioa.
24. bis artikulua. Sartzeko araubidea eta bisita publikoaren eskubide ekonomikoak.
24. ter artikulua. Kontserbatze prebentiboaren printzipioa.
24. quater artikulua. Dokumentuak kudeatzeko sistema.

#### IV. KAPITULUA

##### Museoei buruzko plangintza

24. quinquies artikulua. Plan museologikoa.
24. sexies artikulua. Segurtasun plana.
24. septies artikulua. Jardueren urteko plana eta kudeaketari buruzko txostena.

#### IV. TITULUA

##### Ikuskapenen eta zehapenen araubidea

25. artikulua. Ikuskapena.
26. artikulua. Administrazio arau-haustekak.
27. artikulua. Zehapenak eta zehapen prozedura.

##### Xedapen gehigarriak

Lehen xedapen gehigarria. Museoak eta bilduma museografiko iraunkorrak babesteko araubidea.

Bigarren xedapen gehigarria. Museoen aitorpena.

Hirugarren xedapen gehigarri berria. Foru lege honen ebaluazioa

##### Xedapen iragankorrak

Lehen xedapen iragankorra. Egun dauden museo-en eta bilduma museografiko iraunkorren aitorpen iragankorra.

Bigarren xedapen iragankorra. Beste batzuen titulartasunekoak diren museo eta bilduma museografiko iraunkorrenzako diru-laguntzen araubide iragankorra.

##### Xedapen indargabetzailea

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetzea.

##### Azken xedapenak

Azken xedapenetan lehena. Erregelamenduak emateko ahalmena.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

## ZIOEN AZALPENA

## 1

Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Foru Komunitateak arlo honetan duen eskumen eskusibo erabiliz, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legea onetsi zuen 2005eko azaroaren 22an.

Foru lege horren V. tituluko V. kapituluaren finkatzen da museoak eta bilduma museografiko iraunkorrak zer diren eta, orobat, xedatzen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko duela herritar guztiek sarbidea izatea titulartasun publikoa duten gisa horretako erakundeetara, deusetan galarazi gabe, bertan zaintzen diren ondasunen kontserbazioari begira, zenbait muga ezartzea.

Foru lege horretan ezartzen da, erakunde horiek babesteko, Nafarroako Kultur Ondarearen sailkapenaren atalen batean sartuko direla eta horrelako erakundeak arautzeko foru legearen berariazko arauak aplikatuko zaizkiela. Aurreikusita ez dagoen guztian, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legean modu orokorrean xedatzen dena aplikatuko zaie.

Lege testu horren bigarren xedapen gehigarriak interes kultureko ondasun deklaratzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasunekoak diren museoetako bildumetako ondasun higigarriak eta haien instalatzeko erabiltzen diren ondasun higiezinak.

## 2

Museoek eta bilduma museografiko iraunkorrek, etengabe aurrera egiten eta eraldatzen ari diren kultur erakundeak izanik, maila goreneko araudi bat behar dute, Nafarroako Foru Komunitateko museoaren gaur eguneko egoeratik abiatuta, bikaintasunera iristeko aukera izan dezaten.

Gizarte eta kultur errealitate berria ikusirik, beharrezkoa da legedia eguneratzea, museoaren eta bilduma museografiko iraunkorren kontzeptuak Museoaren Nazioarteko Kontseiluak emandako jarraibideen arabera jasotzeko eta, bestetik, plangintza eta kontrolerako baliabideak ezartzeko, horrela erakunde horiek gizartearen eskakizunekin eta gure kultur ondarea osatzen duten ondasunen babesarekin bat datozela bermatuko baita.

Azkeneko urteotan kultur ondarearen aldeko sentsibilizazioa garatu da herritarrengan, eta horrek ekarri du erakusketa publikorako zentroak ugaltzea. Zentro horien titulartasuna eta kudeaketa modua ezberdina da batetik bestera. Turismoa garatzeko politikek, batez ere landa eremuetan, eta gaur eguneko arte adierazpenei tokia eman beharrek ere lagundu dute horrelakoak ugaltzeko.

Joera sozio-ekonomiko eta kultural horiek dakartzaten proposamenen aniztasuna ikusirik, beharrezkoa da administrazio eskudunak zentro horien izaera tipifikatzea eta museo erakunde horiek kalitatezko kultur zerbitzuak ematen dituztela bermatzea, eta horrekin batera, jadanik dauden museo erakundearen eguneratzea sustatzea, teknologia berriei bat datozen baliabideak garatuz kudeaketa eta erabilgarritasuna hobetzeko.

Museo edo bilduma museografiko iraunkor baten titularrak diren erakunde publikoek edo pertsona fisiko edo juridikoek bermatu beharko dute hango funtsak osatzen dituzten kultur ondasunen mantentze-lanak, zainketa eta erakusketa foru lege honetan, berau garatzeko xedapenetan, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legean eta aplikatzekoak diren ordezkari legetan ezarritako dagoen bezala egiten dutela.

## 3

I. tituluan, xedapen orokorreari buruzkoan, museoak eta bilduma museografiko iraunkorrak zer diren zehazten da, Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legeak 84. artikuluan aurreratu zuen ildotik, eta zentro horien eginkizun berariazkoak eta Nafarroako Foru Komunitateak arlo horretan dituen eskumenak finkatzen dira. Eskumen horien artean Foru Komunitateak museoaren arloan jorratuko duen politikaren diagnostikoa eta plangintza egiteko tresnak prestatu eta eguneratzea dago. Azkenik, Nafarroako Kulturaren Kontseiluak museoaren arloan dituen ahalmenak arautzen dira eta Administrazioaren eta museoaren titularraren arteko lankidetzaren finkatzen da arlo honetako funtsezko printzipio gisa, museoak sustatu eta hobetuko badira.

## 4

II. tituluan Nafarroako museoaren eta bilduma museografikoaren sistemaren izaera ezartzen da, hura osatzen duten erakundearen koordinazioa, lankidetzaren, oreka eta hobekuntza lortzeko egitura alegia. Erakunde batzuek foru lege honen indarrez parte hartzen badute ere sistema horretan, beste askok, horien artean toki entitateek, borondatez parte hartzen ahalko dute. Sistemaren osaera, helburuak eta parte-hartzearen ondorioak finkatzen dira. Sistemaren parte-hartzearen ondorioz, erakundeek abantaila batzuk izanzen dituzte, konparazio batera, lehentasuna izanzen dute Administrazioak museoaren jardueraren sustatzeko ematen dituen diru-laguntzak jasotzeko, prestakuntza jardueretan parte hartzeko eta laguntza teknikoak jasotzeko, besteak beste. Hala ere, 16. bis artikuluan museoak eta bilduma museografikoak desegitea arautzen da.

## 5

III. tituluaren I. kapituluaren zehazten dira museoak eta bilduma museografiko iraunkorrak aitortzeko ezinbesteko baldintzak eta prozedura horren ildo nagusiak, haien titulartasuna edozein delarik ere. Tramitazioa ahalik eta gehien errazten da eta ezinbestekoak diren agiriak besterik ez direla eskatuko finkatzen da, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko abenduaren 12an hartutako 2006/123/EE zuzentzararekin bat. 16. artikulua ezartzen du, "Nafarroako Museoa" edo "Nafarroako Bilduma" izendapean erabiltzeko, bakarrik edo beste hitz batzuekin konbinatuak, beharrezkoa dela museoaren arloan eskumena duen departamentuaren baimena izatea eta toki entitateen izenak ere babesten ditu.

II. kapituluaren Nafarroako museo eta bilduma museografiko iraunkor aitortuen Erregistroa arautzen da, non inskribatuko diren, ofizioz, aitortzen diren museo eta bilduma museografiko iraunkor guztiak, izan ere, aitortua izatea ezinbesteko baldintza da Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontuen kargura diru-laguntzak lortzeko.

III. kapituluaren xedea da museo eta bilduma museografiko iraunkorren kudeaketa arautzea. Kapitulu honetan funts museografikoen izaerari eta babesari buruzko alderdi guztiak azaldu eta erakunde horien titularren eginbeharrak adierazten dira. Eginbehar garrantzitsuenak erregistro liburuak eduki eta eguneratzea eta funtsen inbentarioa egitea dira, eta horregatik, arlo horiek artikulua bereizietan garatu dira.

Nafarroako museoetako eta bilduma museografiko iraunkorretako funtsen Inbentario Orokorra sortzen da eta Administrazioak hura kontrolatzeko funtsezko alderdiak arautzen dira, besteak beste, zentro horien titularrek behar den informazioa eskatzen den euskarrian eman beharra. Horrez gainera, beste alderdi batzuk ere arautzen dira, hala nola, ezinbesteko gordailuak egin beharra eta museo eta bilduma museografiko iraunkorretako funtsen kopiak, erreproduktzioak eta digitalizazioa nola egin behar diren.

## 6

IV. tituluaren museoaren arloko eskumena duen departamentuak, foru lege honetako aginduak zuzen aplikatzen direla begiratzeko, erakunde horiei egiten dizkien ikuskapenen eta zehapenen araubidea jasotzen da. Arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke. Oso larriak izan dira Nafarroako Kultur Ondareari konpondu ezinezko galera edo kaltea eragiten diotenak, eta oro-

bat, museoaren eta bildumen bisitarien segurtasuna arrisku larrian jartzen dutenak.

Sartzeko araubidea eta bisita publikoarengatik eskubide ekonomikoak ere arautzen dira.

Azkenik, IV. kapituluaren plangintzari buruzkoa da.

## 7

Lehenengo xedapen gehigarriak ondasun inbentariatu deklaratzeko foru lege honen indarrez, Foru Komunitatearen edo Estatuaren titulartasunekoak izan gabe, aitortuak izan diren museo eta bilduma museografiko iraunkorretako ondasun higigarriak, horietako batzuk interes kulturalerako ondasun deklaratu daitezkeela galarazi gabe. Neurri horrek berarekin dakar erakunde horretako funtsei Kultur Ondareari buruzko Foru Legearen kategorian horretarako ezarritako babes neurri berariazkoak aplikatzea.

Bigarren xedapen gehigarriak museoaren aitortzea ematen die foru lege honen indarrez Nafarroako Museoari, Jorge Oteiza Fundazio Museoari, Gustavo de Maeztu Museoari eta Arte Garaikideko Muñoz Sola Museoari, foru lege honetan ezarritako prozedura segitu behar izan gabe.

Hirugarren xedapen gehigarriak foru lege honen ebaluazio prozedura ezartzen du.

## 8

Bi xedapen iragankorren helburua da erraztasunak ematea, zentzuzko epe batean, ahalik eta museo erakunde gehien egokitu daitezkeen foru lege honetan bildutako eskakizun berrietara. Horretarako, lehen xedapen iragankorrean aitortzen iragankorra eskatzeko aukera ematen da, foru lege honen indaraldiko lehenengo bost urteotan.

Bigarren xedapen iragankorrean bost urteko epea finkatzen da, orobat, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitortzen iragankor hori jasotzen duten erakundeei diru-laguntzak emateko, behin betiko aitortzea lortzeko behar diren baldintzak betetzeko inbertsioak egin ditzaten.

## 9

Azkenik, foru legeak xedapen indargabetzaile bakarra du, orokorra, eta bi azken xedapen. Lehenak erregelamenduzko garapena egiteko eskumena Nafarroako Gobernuari eta museoaren arloko eskumena duen departamentuko kontseilari titularri ematen die, eta bigarrenak ezartzen du foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko duela indarra.

## I. TITULUA

### Xedapen orokorrak

**1. artikulua.** Foru legearen xedea eta esparrua.

1. Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko eskumeneoak diren museoen eta bilduma museografiko iraunkorren sorrera, antolamendua eta kudeaketa arautzea eta, horrez gainera, Nafarroako Museoen Sistema bat ezarri eta arautzea gizarteari ematen dizkioten zerbitzuak antolatzeko, koordinatzeko eta eragingarriak izateko eta haien funtsak eta horretara bideratzen diren baliabide publikoak babestu eta egoki kudeatzeko.

2. Foru lege honen arabera, Nafarroako Foru Komunitateak eskumena du museo edo bilduma museografiko iraunkor gisa aritzeko aitorpena duten kultur zentroen gainean, bere lurraldean kokaturik badaude eta Estatuaren titulartasunekoak ez badira, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1983 Lege Organikoaren 44.10 artikuluan ezarrita dagoen bezala.

**2. artikulua.** Museoa zer den.

Museoak jendearentzat zabalik dauden erakunde iraunkorrak dira, irabazi-asmorik gabe eta gizartearen zerbitzuan eta haren garapenerako, arkeologia, historia, arte, etnologia, zientzia eta teknika edo kultur arloko balioa duten ondasunak eta bildumak eskuratu, kontserbatu, ikertu, zabaldu eta erakusten dituztenak, ikerketa, interpretazio, hezkuntza eta gozameneko.

**3. artikulua.** Museoen eginkizunak.

1. Son funciones de los museos: Hona hemen museoen eginkizunak:

a) La protección y conservación de los bienes culturales que se encuentren bajo su custodia, mediante la adopción de medidas preventivas y de restauración. a) Gordetzen dituen kultur ondasunen babesa eta kontserbazioa, prebentzio eta zaharberritzeko neurriak hartuz.

b) Kultur ondasunak eskuratzea, bere plan museologikoan ezarritakoaren arabera, bere bildumak egin, osatu edo handitzeko.

c) Ondasun horiek irizpide zientifikoen arabera katalogatu eta dokumentatzea.

d) Ikerketak egitea dagozkion esparru tematiko eta geografikoari buruz eta erakundearen gaineko eginkizunekin zerikusia duten alderdi museologikoei nahiz museografikoei buruz.

e) Dagozkion eginkizunak betetzetik sortzen den jakintza gizarteari jakinaraztea eta bere bildumen zabalkundea egitea.

f) Erabiltzaileen eskaerei kasu egitea, museoaren funtzionamendu arauari jarraikiz.

g) Katalogoak, monografiak, aldizkako serieak eta bere helburuak betetzeko behar den beste edozein hedabide prestatu eta argitaratzea.

h) Haren edukiei buruzko jarduera didaktikoak eta prestakuntzakoak antolatzea.

i) Gizartearen eta haren kultur ondarearen arteko bitartekaritza interpretatiboa egitea.

j) Bere bildumen erakusketa iraunkor, antolatu eta esanguratsua egitea.

k) Noizean behin erakusketa zientifikoak eta jendarterako erakusketak antolatzea, bakoitzaren plan museologikoan ezarritako jarraibideen arabera.

l) letra berria. Publikoari museoetara sartzea eta museoen kultur zerbitzuak baliatzea sustatzea eta bultzatzea, haietara bertaratuta nahiz informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien bidez, arreta berezia jarrita irisgarritasun-zailtasunak dituzten taldeei.

m) letra berria. Lege nahiz erregelamendu bidez haien gain utzitako beste eginkizun oro."

2. Museoek bestelako kultur edo gizarte jarduera osagarriak egin ditzakete, horretarako instalazio egokiak badituzte eta lege honen arabera dagozkion eginkizunak betetzeko ohiko lanari kalterik eragiten ez badiote.

**4. artikulua.** Bilduma museografiko iraunkorra zer den.

Bilduma museografiko iraunkorrak dira pertsona fisiko edo juridiko batek irabazi asmorik gabe kontserbatzen dituen kultur ondasunen multzo egonkorak, zeinetan ezin diren bete, funtsen kopuru txikia, baliabide eskasia edo teknikaririk eza dela-eta, museoari esleitutako eginkizun guztiak, betiere haien titularrek bermatzen badituzte, gutxienez, jendearen bisitak ordutegi egoki eta finkoan, funtsak kontserbatu, zaindu eta erakusteko oinarritzko baldintzak eta ikertzaileentzako erabilera.

**5. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, museoaren arloko eskumena duen departamentuaren bitartez, Nafarroari arlo honetan dagozkion eskumenak erabiliiko ditu.

Halaber, museoek eta bilduma museografiko iraunkorrek bere eginkizunak baliatzean eta bere betebeharrak betetzean gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko araudia betetzen dutela zainduko du.

2. Zehazki, museoaren arloko eskumena duen departamentuari eskumen hauek dagozkie:

a) Museoaren gaineko politika eta horren lehen-tasunak diseinatu eta planifikatzea, museoaren ondarea kontserbatu, babestu eta kudeatzeari begira.

b) Museoari eta bilduma museografiko iraunkorrei aitortzea ematea, foru lege honetan xedatutakoaren arabera.

c) Nafarroako Museoaren eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Erregistroa prestatzea eta etengabe eguneratzea.

d) Museoetako ondarea erregistratu, dokumentatu, kontserbatu, erakutsi eta jendarteratzeko arau teknikoak prestatzeko jarraibideak sortzea.

e) Nafarroako museoetako eta bilduma museografiko iraunkorretako funtsen Inbentario Orokorra prestatu eta eguneratzea.

f) Nafarroako Museoaren eta bilduma museografiko iraunkorren Sistema kudeatu eta koordinatzea.

g) Museoaren eta bilduma museografiko iraunkorren antolamendua eta funtzionamendua ikuskatzeko lanak, indarreko legedia betetzen dela egiaztatzeko eta, beharrezkoa bada, hori betetzeko behar diren neurriak hartzeko.

h) Museoaren arloan lanean ari diren profesionalen etengabeko prestakuntza eta espezializazioa sustatzea eta eginkizun horretan laguntzea.

i) Museoari eta bilduma museografiko iraunkorrei aholkua eta laguntza teknikoa ematea, beren helburuak hobeki bete ditzaten.

j) Museoentzako eta bilduma museografiko iraunkorren laguntza eta diru-laguntzak kudeatzea.

j) bis letra berria. Ondarea hedatzeko, ikertzeko eta dokumentatzeko lana sustatzea.

j) ter letra berria. Nafarroako museoaren eta bilduma museografiko iraunkorren sistemari atxikitako museoak sustatzea.

j) quater letra berria. I+G+Bko politikak sustatzea, bai eta atxikitako museoaren arteko arlo horretako lankidetzaren ere.

k) Foru lege honek eta antolamendu juridikoak esleitzen dizkion gainerako eskumenak eta, oro-

bat, Nafarroako Foru Komunitateari museoaren arloan dagozkion eskumenak izanik, beste administrazio organo edo erakunde bati berriaz esleituak ez daudenak.

m) letra berria. Nafarroako museoaren eta bilduma museografiko iraunkorren erregistroa prestatu, argitaratu eta gaurkotzea.

n) letra berria. Nafarroako museoaren eta bilduma museografiko iraunkorren aitortzea berritzea.

ñ) letra berria. Nafarroako museoaren eta bilduma museografiko iraunkorren aitortzea ezeztatzea.

o) letra berria. Funtzen aldi baterako irteerak eta erreproduzioak baimentzea.

p) letra berria. Zehapenak ezartzeko ahalmena erabiltzea foru lege honetan ezarritako eran.

q) letra berria. Aurrekontu-funtsak edukitzea, kultur ondasunak erosteko, babesteko eta kontserbatzeko.

**5. bis artikulua berria.** Nafarroako toki entitateen eskumenak.

Nafarroako Toki Administrazioak ondoko eskumenak baliatuko ditu museoaren eta bilduma museografiko iraunkorren arloan:

a) Udalen titulartasuneko museoak antolatzea eta kudeatzea.

b) Museo horien funtsen inbentarioa egitea eta funtsak kudeatzea eta gaurkotuta mantentzea.

c) Titularrak ez diren udal esparruko museoekin lankidetzan aritzea.

d) Museoaren berriazko jarduerak sustatu eta laguntza ematea.

e) Haien udalerrian sortu eta/edo baimentzen diren museoaren edo bilduma museografikoaren berri ematea.

f) Museoari eta bilduma museografiko iraunkorrei baimena emateko eta horiek Nafarroako museoaren eta bilduma museografiko iraunkorren sistemari sartzeko prozeduretan parte hartzea, baldin eta udalaren barrutia ukitzen badute edo harekin lotura badute.

**6. artikulua.** Diagnostikoa eta plangintza.

Museoaren arloan eskumena duen departamentuak Nafarroako Foru Komunitateak museoaren arloan jorratuko duen politikaren diagnostikoa eta plangintza egiteko tresnak prestatu eta eguneratuko ditu.



**7. artikulua.** Nafarroako Kulturaren Kontseilua.

Nafarroako Kulturaren Kontseiluak, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen 10. artikuluan esleitutako ahalmezez gainera, eginkizun hauek izanen ditu:

- a) Museoen arloko xedapen orokorren proiektuei buruzko txostenak egitea.
- b) Museoen eta bilduma museografiko iraunkorren aitortpenei buruzko txostenak egitea.
- c) Nafarroako Museoen Sistemaren antolamendua, funtzionamendua eta koordinazioa hobetzeko ekimenak, jarduketak eta planak proposatzea.

**8. artikulua.** Sustapen eta lankidetzaren printzipioak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak arreta berezia emanen die ondokoei:

- a) Nafarroako herriaren historiaren, kulturaren eta bizimoduaren erakusgarri diren museoak eta bilduma museografiko iraunkorrak sustatzea.
- b) Zientziaren, naturaren, teknikaren eta teknologiaren museoak eta bilduma museografiko iraunkorrak sortzea, horiekin lotura duten erakunde publiko edo pribatuekin lankidetzan.
- c) Arte garaikidearen agerpen anitzekin lotutako ikerkuntza, kontserbazio, hedapen eta sustapen jardueren garpenari lotutako museo-erakundeak ezartzea.

2. Museo eta bilduma museografiko iraunkor berriei buruzko politikan kontuan hartu beharko dira, kultur-termino zorrotzez gain, turismoari eta lurraldearen garapen jasangarriari lotutakoak ere, txertatuta dauden lurraldearen eta, oro har, erkidegoaren, gizarte-, ekonomia- nahiz kultura-garapeneraren palanka eraginkor izan daitezen."

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa tokiko, herrialdeko, Espainiako nahiz atzerriko museoen eta bilduma museografiko iraunkorren titularrekin eta kultur eta hezkuntza arloko beste edozein erakunderekin lankidetzan arituko da Nafarroako museoen azpiegiturak, funtsak eta zabalkundea hobetu eta sustatzeko.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak orobat sustatuko du herritarrek museo-erakundearen arloan parte har dezaten, bereziki museoen sustapena edo museoetan boluntario-lanak egitea helburu duten irabazi asmorik gabeko elkar-teen edo entitateen bidez.

**II. TITULUA****Nafarroako museoen eta bilduma museografiko iraunkorren sistema****9. artikulua.** Definizioa.

Nafarroako Museoen Sistema Nafarroako Foru Komunitateko museoak eta bilduma museografiko iraunkorrak biltzeko egitura gisa sortzen da, kudeaketa eta zerbitzuak hobetu eta baliabide publikoak eta pribatuak hobeki aprobetxatzeko asmoz lagundu nahi duten guztiek osatua.

**10. artikulua.** Osaera.

Hauek dira Nafarroako Museoen Sistemaren parte hartuko dutenak:

a) Museoen arloko eskumena duen departamentuak edo hari atxikita izanik, museoen kudeaketarekin zerikusia duten administrazio unitate eta organoak. Departamentuaren ardura izanen da sistemaren zuzendaritza eta koordinazioa.

b) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasuneko museo eta bilduma museografiko iraunkorrak.

c) Halako museo eta bilduma museografiko iraunkorrak, non haien administrazio, zuzendaritza edo zaintza organoetako kideen erdiak edo gehiago Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak izendatu dituen.

d) Foru Komunitatearentzat interesgarriak izanik, Nafarroako Museoen Sistemaren borondatez sartzan diren gainerako museo eta bilduma museografiko iraunkorrak. Atxikipena erakunde horietako titularraren eta museoen arloko eskumena duen departamentuaren arteko hitzarmenaren bidez egingen da, bost urterako gutxienez.

**11. artikulua.** Helburuak.

Nafarroako Museoen Sistemak helburu hauek betetze aldera lan egingen du:

1. Hezkuntza proiektuen, erakusketen eta gainerako jardueren programa bat garatzea.

2. Sistemaren dauden zentroetako profesionalen lankidetzaren eta etengabeko prestakuntza erraztea.

3. Bildumen tratamendu teknikoa homologatu eta normalizatzeko tresnak garatzea, behar bezala dokumentatu, kontserbatu, zaharberritu eta zabalkundea egiteko.

4. Beste erakunde publiko edo pribatu batzuen babesa bilatzea sistemako kideen proiektuetarako, bai jardueretarako, bai ekipamendu edo azpiegiturarako, baita bestelako beharretarako ere.

5. idatz-zati berria. Erregelamendu bidez ezarzen den beste edozein.

**12. artikulua.** Nafarroako Museoen Sistemaren sartzearen ondorioak.

1. Nafarroako Museoen Sistemaren sartzen diren museo eta bilduma museografiko iraunkorrek ondokoetarako lehentasuna izanen dute:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak museoaren jardura sustatzeko eta horrelako zentron inbertsioetarako ematen dituen dirulaguntzak jasotzeko, aurrekontuan dagoen diruaren arabera.

b) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak planifikatu eta antolatzen dituen erakusketen zirkuituetan eta beste kultur jardura batzuetan sartzeko.

c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatzen dituen kultur, hezkuntza eta turismo ibilbideetan sartzeko eta horien bidez ezagutara izateko.

d) Zentroko langileek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak antolatzen dituen prestakuntza eta espezializazio jardueretan parte hartzeko.

e) Museoen arloko eskumena duen departamentuak funtsak zaindu eta zaharberritzeko ematen edo antolatzen duen laguntza teknikoaz baliatzeko.

2. Legean ezarritakoez gain, sistemaren sartutako museoek eta bilduma museografiko iraunkorrek ondoko betebeharrak dituzte:

a) Sistemako museoaren eta bilduma museografiko iraunkorren arteko informazio-trukean laguntzea.

b) Erregelamendu bidez ezartzen diren egunetan eta orduetan irekitzea jendearentzat. Orduetegi hori ez da inolaz ere izanen asteko 20 ordutik beheitikoa museoaren kasuan eta 10 ordutik beheitikoa bilduma museografiko iraunkorrean.

c) Jasota uztea toki ikusgai eta jendaurreko batean Nafarroako museoaren eta bilduma museografiko iraunkorren sistemaren sartuta dagoela, eskumena duen departamentuak ezarritako identitate grafikoko ereduaren arabera.

d) Eskumena duen departamentuaren baime-nari lotuta ez dauden eskubide ekonomikoak jasoz izanaren berri ematea kasuko departamentu horri.

### III. TITULUA

#### Museoen eta bilduma museografiko iraunkorren araubide orokorra

#### I. KAPITULUA

#### Museoen eta bilduma museografiko iraunkorren aitortzea

**13. artikulua.** Museo gisa aitortua izateko betebeharrak.

Museoek, aitortzea jasotzeko, betebeharrak bete beharko dituzte:

a) Balio arkeologikoa, historikoa, artistikoa, etnologikoa, zientifikoa, tekniko edo kulturala duten ondasunen bilduma egonkor bat izatea, horiek ukigarriak zein ukiezinak izan, museoaren eragin esparruarentzat eta helburuarentzat nahikoa eta egokia dena.

b) Museoaren eginkizunetarako egokia den higiezin bat izatea, museoaren egoitza iraunkorra izanen dena.

c) Museologian eta kasuan kasuko museoaren edukiari eta eginkizunei loturiko zientzia arloetan prestakuntza duten langile teknikoak izatea.

d) Urteko aurrekontu-zuzkidura egonkorra izatea, bere eginkizunak eta helburuak betetzeko modukoa.

e) Bere plan museologikoaren arabera jardutea.

f) Funtsen inbentarioa eta erregistro liburuak izatea.

g) Bildumaren erakusketa iraunkor, antolatu eta esanguratsua egitea, azalpenak eta guzti.

h) Ingurumenaren eta segurtasunaren aldetik, bildumaren kontserbazioa eta zaintza bermatzeko moduko ezaugarriak izatea.

i) Funtsak ikusteko moduan izatea, ikerketarako, kontsultarako, irakaskuntzarako eta jendeak ezagutu eta gozatzeko.

j) Erakusketa jendearentzako zabalik izatea, modu iraunkorrean eta bisitatzeko ordutegi finko batekin.

**14. artikulua.** Bilduma museografiko iraunkor gisa aitortua izateko betebeharrak.

Bilduma museografiko iraunkorrek, aitortzea jasotzeko, betebeharrak bete beharko dituzte:

a) Balio arkeologikoa, historikoa, artistikoa, etnologikoa, zientifikoa, tekniko edo kulturala duten ondasunen bilduma egonkor bat edukitzea, horiek ukigarriak nahiz ukiezinak izan.

b) Bere eginkizunetarako egokia den higiezin bat edukitzea, bildumaren egoitza iraunkorra izanen dena.

c) Bere bildumaren erakusketa iraunkorra, antolatua eta esanguratsua egitea.

d) Funtsen inbentarioa eta erregistro liburuak izatea.

e) Ingurumenaren eta segurtasunaren aldetik, bildumaren kontserbazioa eta zaintza bermatzeko moduko ezaugarriak izatea.

f) Erakusketa jendearentzako zabalik izatea, modu iraunkorren eta bisitatzeko ordutegi finko batekin.

**15. artikulua.** Museoen eta bilduma museografiko iraunkorren aitortpena.

1. Museoen eta bilduma museografiko iraunkorren aitortpena titularrak berak eskatu beharko du eta erabakia hartzea museoen arloko eskumena duen departamentuak hartuko du.

2. Titularrak ondoko dokumentazio hau bidali beharko dio museoen arloko eskumena duen departamentuari:

a) Museoa edo bilduma museografiko iraunkorra sortu izanaren egiaztagiria.

b) Foru lege honetan ezarritako betebeharrak guztiak betetzen dituela egiaztatzen duen agiria.

c) Bildumaren inbentarioa, zehaztuko den euskarrian.

d) Plantilla.

e) letra berria. Jendearentzako zabalik egoteko orduak.

3. Aitortpena sei hilabeteko epean eman edo ukatuko da, foru lege honetan ezarritako betebeharrak guztiak betetzen ote diren egiaztatu eta Nafarroako Kulturaren Kontseiluaren txostena ikusi ondoren. Epe horretan berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada, aitortpena onartu dela ulertuko da.

4. Museo edo bilduma museografiko iraunkor bakoitza aitortzeko administrazio egintzan honako hauek adieraziko dira:

a) Izena.

b) Egoitza.

c) Helburuak eta irizpide zientifikoak.

d) Titularra eta kudeaketa organoa.

e) Oinarrizko antolamendua eta dituen zerbitzuak.

5. Aitortpena emateko administrazio egintza Nafarroako Museoen eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Erregistroan inskribatuko da.

6. Museoa edo bilduma museografiko iraunkorra Nafarroako Foru Komunitatearen titulartasuneko ez bada, ez da zilegi izan aitortpena ematea baldin eta haren funtsen artean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren jabetzakoa den material arkeologikoa edo nolana hiko kultur ondasunen bat baldin badago eta, aurretik, ondasun horien gordailua egiteko arauak finkatzeko hitzarmena sinatu ez bada.

7. Aitortpena eman ondoren, eta deusetan galaz gabe Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari ikuskapenak egiteko dagokion eskumena, museo eta bilduma museografiko iraunkor guztiak beharturik daude museoen gaineko eskumena duen departamentuari idatziz jakinaraztera foru lege honetan ezarritako betebeharrak gainean edo haien kudeaketa organoetan gertatzen diren aldaketak guztiak. Jakinarazpen hori ezer aldatu aurretik egin beharko da, gertaeren nolakotasuna dela eta ezinezkoa den kasuetan izan ezik.

8. Gerora sortutako arrazoiengatik museoaren edo bilduma museografiko iraunkorren aitortpena emateko aintzat hartutako betebeharrak bat betetzetik gelditzen bada, aitortpena eten edo bertan behera uzten ahalko da. Halakoetan, behar den prozedura instruituko da aurretik eta titularrari entzunaldia emanen zaio.

**16. artikulua.** Izena.

1. "Nafarroako Museoa" edo "Nafarroako Bilduma" izendapenak, bakarrik edo beste hitz batzuekin konbinatuta, edozein helburutarako erabili nahi izanez gero, museoen arloko eskumena duen departamentuaren baimena beharko da. Haren baimena beharko da, halaber, museoen eta bilduma museografiko iraunkorren izenetan Nafarroako Foru Komunitatearen osotasunaren aipamena egiten duten adjektiboak erabiltzeko.

2. Toki entitateen izena, bakar-bakarrik edo beste hitz batzuekin konbinatuta, erabiliz gero, kasuan kasuko toki entitatearen berariazko baimena beharko da.

**16. bis artikulua berria.** Museoak eta bilduma museografiko iraunkorrak desagitea.

Museoak eta bilduma museografiko iraunkorrak sortzeko baimena eman behar duen organoak erabakiko du museoak eta bilduma museografiko iraunkorrak desagitea, eta museoen eta bilduma museografiko iraunkorren Nafarroako erregistroko inskripzioa ezerezteko agindua emanen du.

## II. KAPITULUA

### Museoen eta bilduma museografiko iraunkorren erregistroa

**17. artikulua.** Nafarroako Museoen eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Erregistroa.

1. Museoen arloko eskumena duen departamentuan Nafarroako Museoen eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Erregistro bat izanen da, erregistro publiko gisa eta izaera administratiboarekin, non foru lege honetan xedatutakoaren arabera aitorpena jasotzen duten museo eta bilduma museografiko iraunkor guztiak inskribatuko diren.

2. Museo edo bilduma museografiko iraunkor bat Erregistroan inskribatzea ofizioz eginen du museo arloko eskumena duen departamentuak, foru lege honen arabera aitorpena jaso ondoren.

3. Erregistroan, gutxienez, honako datu hauek agertu beharko dira: aitorpena emateko administrazio egintzan jaso ziren datuak, inskripzioaren eguna eta, hala bada, baja emateko eguna.

4. Museo edo bilduma museografiko iraunkor gisa jarduteko aitorpena eten edo bertan behera utziz gero, hori ere inskribatu beharko da, hori deklaritzen duen administrazio egintza irmo bilakatzen denean.

5. Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontuen kargura diru-laguntzak jasotzeko edo museo edo bilduma museografiko iraunkorrenzako beste edozein onuraz baliatzeko, ezinbestekoa izanen da Nafarroako Museoen eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Erregistroan inskribaturik izatea.

## III. KAPITULUA

### Museoen eta bilduma museografiko iraunkorren kudeaketa

**18. artikulua.** Museoen eta bilduma museografiko iraunkorren titularren eginbehar orokorrak.

Museoen eta bilduma museografiko iraunkorren titularrek eginbehar hauek izanen dituzte:

a) Aitorpena emateko aintzat hartutako betebeharrak betetzen segitzea.

b) Erregistro liburuak eta funtsen inbentarioa eguneraturik izatea.

c) Zentroa irekitzeko orduak, eta ordutegian egiten diren aldaketak, jendeari eta museo arloko eskumena duen departamentuari jakinaraztea. Ordutegia zentroko sarreran jarriko da, ongi ikusteko moduko toki batean.

d) Zentroan sartzeko tarifen berri ematea jendeari eta museo arloko eskumena duen departamentuari.

e) Besterentzeak, gordailuak, eskurapen berriak, aldi baterako irteerak edo beste edozein arrazoi dela-eta, bere funtsetan gertatzen diren aldaketa guztien berri ematea museo arloko eskumena duen departamentuari.

f) Zentroaren jarduerari, bisitariei eta emanda zerbitzuei buruzko informazio eta estatistika datuak jaso eta museo arloko eskumena duen departamentuari bidaltzea.

g) Ikuskapenak egiteko eskumena esleiturik duten organoei zentroaren funtzionamendua, instalazioak eta bulegoak eta, orobat, dokumentazioa, erregistro liburuak eta funtsen inbentarioa ikuskatzen uztea eta, haiek eskatuz gero, behar duten informazioa lortzeko erraztasunak ematea.

h) letra berria. Erraztasunak ematea funtsak ikertzeko interesa duten pertsoneri.

i) letra berria. Instalazioak ezgaitasunen bat duten pertsonentzako egokitzea, arkitektura-oztopoak kenduz eta edukiak zentzumenetan zailtasunak dituzten pertsonentzat egokituz (zeinuen hizkuntza, braille, azpi-tituluak eta abar).

**19. artikulua.** Erregistro liburuak.

1. Museoei eta bilduma museografiko iraunkorrek ondoko erregistro liburu hauek eduki beharko dituzte, funtsen sarrera eta irteera guztien idazpena egiteko ordena kronologikoaren arabera:

a) Zentroko bilduma egonkorren erregistro liburuak, zentroa osatzen duten funts guztiak inskribatzeko.

b) Gordailuen erregistro liburuak, kontzeptu hori dela kausa sartzeko diren funtsak inskribatzeko, titularra edozein delarik ere.

2. Prospekzio edo indusketa baimenduetatik datozen material arkeologikoen sarrerak gordailuen liburuan erregistratu beharko dira beti.

**20. artikulua.** Funtsen inbentarioa.

1. Museo eta bilduma museografiko iraunkorrek beren funtsen inbentarioa egin eta eguneratuta eduki beharko dute.

2. Museoen arloko eskumena duen departamentuak noiznahi egiazta dezake erregistro liburuak eta inbentarioa bat datozela bildumak eta gordailua osatzen dituzten funtsekin.

**21. artikulua.** Funtsen Inbentario Orokorra.

1. Museoen arloko eskumena duen departamentuak Nafarroako museoetako eta bilduma museografiko iraunkorretako funtsen Inbentario Orokorra prestatu eta etengabe eguneratuko du.

2. Hori helburu, museo eta bilduma museografiko iraunkor guztiek behar den informazioa eman beharko dute.

3. Inbentario orokor horretan jasotzen den informazioa museoen arloko eskumena duen departamentuak zabalkunderako erabil dezake.

**22. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasunekoak diren Nafarroako Kultur Ondareko ondasunen gordailuak.

1. Nafarroako Kultur Ondareko, jabari publikoko edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo haren erakunde autonomoen titulartasunekoak diren ondasunak gordailuan hartzen ahal dituzten erakunde bakarrak Nafarroako Museoen Sistemari sarturik dauden museoak eta bilduma museografiko iraunkorrak dira, horrelakoak gordetzeko bakoitzak duen gaitasunaren arabera, museoen arloko eskumena duen departamentuak hala erabakiz gero.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ondasunak gordailuan hartuko dituzten zentroak museoen arloko eskumena duen departamentuak aukeratu ditu, hurbiltasun geografikoaren edo gaiaren espezializazioaren gaineko irizpideen arabera, materialen kontserbazioari eta segurtasunari begira zer den onena eta zentro bakoitzak zientziaren eta kulturaren ikuspegitik betetzen dituen eginkizunak kontuan harturik.

**23. artikulua.** Beste batzuen titulartasunekoak diren Nafarroako Kultur Ondareko ondasunen gordailuak.

1. Instalazioaren gabeziengatik, titularrak indarreko araudia ez betetzeagatik edo salbuespeneko presako arrazoiengatik, museo edo bilduma museografiko iraunkor bateko funtsen kontserbazioa, segurtasuna edo erabilgarritasuna arriskuan baldin badago, museoen arloko eskumena duen departamentuak, museoaren edo bildumaren titularrari entzunaldia eman ondoren, funts horiek beste museo batean edo batzuetan gordailuan izatea eskaintzen ahalko du, erabaki hori hartzea dakarten arrazoiak desagertu arte.

2. Museo edo bilduma museografiko iraunkor bat itxi, desegin edo itxiarazten bada, museoen arloko eskumena duen departamentuak, titularrari eta balizko beste interesdun batzuei entzunaldia eman ondoren, eskaintzen ahalko du hango funtsak

beste museo batean edo batzuetan gordetzea, ondasunen izaerarekin bat datozenetan hain zuzen, eta hurbiltasun geografikoa ere kontuan harturik. Erabaki hori hartzea dakarten arrazoiak desagertuz gero, gordailuan utzitako funtsak jatorrizko museora edo bilduma museografiko iraunkorrera itzuliko dira.

**24. artikulua.** Kopia, erreprodukzioak eta digitalizazioa.

1. Edonolako prozeduraren bidez museo edo bilduma museografiko iraunkor batean egiten diren kopia eta erreprodukzioak eta funtsen digitalizazioa ikerketa eta kultur zabalkundearen errazteko asmoz egiten dira, egileen jabetza intelektualaren eskubideak errespetatuz, obra behar bezala zainduz eta zentroaren ohiko jarduna oztopatu gabe.

2. Kopia edo erreprodukzioak egiteko baimena ematea ondasunaren titularrari edo, hala bada, ustiatzeko eskubideen titularrari dagokio, Jabetza Intelektualari buruzko Legearekin bat. Museo edo bilduma museografiko iraunkor bat titularrak ez beste batek kudeatzeko hitzarmena sinatuz gero, bertan arautuko da museo edo bilduma museografiko iraunkorreko ondasunen kopia eta erreprodukzioak egiteko baimenak emateko sistema.

3. Egiten diren kopia eta erreprodukzioetan halakoak direla agerrarazi beharko da modu ikusgarri batean, baita jatorria ere.

4. idatz-zati berria. Nafarroako Gobernuak museoetako edukiak digitalizatzeko plan bat sustatuko du. Plana Nafarroako Museoen Sistemari atxiki eta hurrengo hiru urteetan garatuko da.

**24. bis artikulua berria.** Sartzeko araubidea eta bisita publikoarengatik eskubide ekonomikoak.

1. Museoak eta bilduma museografiko iraunkorrak ordutegi finko batean egonen dira jendearentzat zabalik. Ordutegia eta sartzeko baldintzak museoaren edo bilduma museografikoaren sarrean egonen dira, ikusteko moduan eta eraikinaren ondare-balioaren arabera egokia den moduan.

Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen museoak astean behin itxiko dira, arauz ezarritako moduan.

Bisiten ordutegiari eta baldintzei buruzko edozein aldaketa aurretiaz jakinarazi beharko zaio departamentu eskudunari, arauz ezarritako moduan.

2. Nafarroako Sistemari sarturiko museoek eta bilduma museografiko iraunkorrek ezgaituentzako irisgarritasunari eta oztopoak kentzeari buruzko legeak bete beharko dituzte, eta sustatu egiten dute irisgarritasuneko berriazko programak ezartzea eta ezgaituek kultur zerbitzuez gozatu ahal izatea.

3. Museoeak eta bilduma museografikoeak eskubide ekonomikoak jaso ahalko dituzte bisita publikoengatik, aplikatuz, betiere, Europar Batasuneko kideak diren estatuetak nazionalitatea duten pertsonen arteko berdintasunaren printzipioa, lehenbizi nazionalitatea egiaztatuta.

4. Europar Batasuneko estaturen bateko pertsonak, behin nazionalitatea egiaztatu ondoren, eskubidea izanen dute doan sartzeko museo eta bilduma museografikoetan, erregelamenduz ezarzen diren egunetan.

Halaber, doakoa izanen da museo eta bilduma museografikoetan sartzea edozein nazionalitateko pertsonentzat, Espainiako Egun Nazionalean, Konstituzioaren Egunean, Nafarroako Egunean, Museoen Nazioarteko Egunean eta Turismoaren Nazioarteko Egunean.

5. Nafarroako museoak eta bilduma museografiko iraunkorren sistemak dauden museo eta bilduma museografikoen kasuan, bisita publikoengatik eskubide ekonomikoak jasotzeko museoak arloko eskumena duen departamentuaren berariazko baimena beharko da; izan ere, hari egokituko zaio, halaber, pertsona, kolektibo profesional edo hezkuntza nahiz kultura arloko erakundeekin loturiko taldeen doako sarbiderako edo sarbide merkegarako araubide bereziak zehaztea.

Nolanahi ere, Europar Batasuneko 18 urtez beherakoek, 65 urtez gorakoek, jubilatuek eta % 33koa baino minusbaliotasun gradu handiagoa dutenek ez dute bisita ordaindu beharko, behar den egiaztatzea aurkeztuta.”

**24. ter artikulua berria.** Kontserbatze prebentiboaren printzipioa.

Kontserbazioaren arloan, museoak eta bilduma museografikoeak beren jarduera orientatu beharko dute prebentzioko estrategiak eta esku-hartzeak planifikatu, ikertu eta aplikatzera, zertarako-eta egoera egokiak sortzeko edo mantentzeko museoetako funtsak haiek honda ditzaketen era guztieta-ko faktoreetatik babeste aldera.

**24. quater artikulua berria.** Dokumentuak kudeatzeko sistema.

1. Museoak eta bilduma museografiko iraunkorrek dokumentuak kudeatzeko sistema bat eduki beharko dute. Sistema horretan, tresna deskriptiboen eta kontrol tekniko eta administratiboko tresnen multzoa jasoko da, hiru funts motei zuzendua:

- a) Museografikoak.
- b) Dokumentalak.
- c) Bibliografikoak.

2. Museoen arloko eskumena duen kontseilari-tzak aktiboki lagunduko du Museoen eta Bilduma Museografikoen Sistemako museoak eta bilduma museografikoei buruzko informaziorako, dokumentaziorako eta kudeaketarako sistema integratuak pixkanaka ezartzeko, komunikazioaren eta informazioaren teknologia berriak erabiliz.

#### **IV. KAPITULUA** **Museoak buruzko plangintza**

**24. quinquies artikulua berria.** Plan museologikoa

1. Plan museologikoa izaera integratzailea eta orokorra izanen du, eta erakundearen ildo programatikoa eta edukien proposamena jaso beharko ditu.

2. Plan museologikoen erredakzioak museoak arloko eskumena duen departamentuak ematen dituen arauak bete beharko ditu. Plan Museologikoa Segurtasun Plana ere jasoko du, hain zuzen ere hurrengo artikuluan aipatzen dena.

3. Departamentu eskudunak sustatuko du plan museologikoa eta erakusketak iraunkorretako eta aldi baterako erakusketetako aurkezpenak ikerketa zientifiko eta museologikoen eta berrikuntza museografikoen arabera direla.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasunekoak diren museo edo bilduma museografikoen plan museologikoa departamentu eskudunak onetsi beharko ditu.

Nafarroako Museoak eta Bilduma Museografikoen Sistema osatzen duten gainerako museoetako plan museologikoa departamentu eskudunaren aldeko txostena eskatuko dute. Aldekatzat izan dela ulertuko da baldin eta bi hilabete iragaten badira hura jaso gabe.

**24. sexies artikulua berria.** Segurtasun plana.

Museoak segurtasun plan bat eduki behar dute. Plan horretan, kontuan hartu beharko dira haren ezaugarriak, bai eta gisa horretako erakunde batek dauzkan arriskuei aurre egiteko behar diren giza baliabideak, baliabide teknikoak eta antolamendu-neurriak ere.

**24. septies artikulua berria.** Jardueren urteko plana eta kudeaketari buruzko txostena.

1. Nafarroako Museoak eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Sistemari atxikitako zentroak jardueren urteko plan bat eduki beharko dute. Planak kasuko zentroak garatu nahi dituen aurreikuspenak jasoko ditu, hain zuzen ere ondoko arloetan: ikerketa, kontserbazioa, zaharberritzea, mantentzea, zabalkundea eta administrazioa.

2. Departamentu eskudunak, behar den erregelamenduzko garapenaren bitartez, behar diren gomendio teknikoak emanen ditu jardueren urteko plana eta kudeaketari buruzko txostena egiteko.”

#### IV. TITULUA

##### Ikuskapenen eta zehapenen araubidea

###### 25. artikulua. Ikuskapena.

Museoen arloko eskumena duen departamentuak, horretarako baimena duten funtzionarioen bidez, behar diren ikuskapenak eginen ditu foru lege hau betetzen dela begiratzeko. Funtzionario horiek, ondorio horietarako, agintaritzako agentzatzat hartuko dira.

###### 26. artikulua. Administrazio arau-hausteak.

1. Museoen arloko administrazio arau-hauste berariazkoak dira foru lege honetan ezarritako betebeharrak eta eginbeharrak urratzen dituzten egin-tzak edo ez-egiteak.

2. Foru lege honetan ezarritako beste betebeharrak ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da.

3. Hauek dira arau-hauste larriak:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren izenean dauden museoetako eta bilduma museografiko iraunkorretako funtsen erreproduzioak baimenik gabe egitea.

b) Funtsen segurtasuna eta kontserbazioa bermatu beharra ez betetzea.

c) Administrazioak ikuskapenak egiteko duen ahalmena oztopatzea.

d) Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea.

4. Hauek dira arau-hauste oso larriak:

a) Pertsonen segurtasuna arriskutan jartzen dutenak.

b) Nafarroako Foru Komunitateko Kultur Ondareari oso kalte handia edo konpondu ezinezko galera eragiten diotenak.

c) Arau-hauste larriak behin eta berriz egitea.

d) letra berria. Arau-hauste oso larritzat joko dira bisita publikoaren betebeharrak justifikatu gabe ez betetzea, berdintasunaren printzipioa urratuta, jaioterri, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo bestelako edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozialak direla eta.

5. Artikulu honen ondorioetarako, arauak behin eta berriz urratzea da urtebeteko epean izaera bereko bi arau-hauste baino gehiago egingatekoa, administrazio bidean irmo bilakatu den ebazpen baten bidez hala dela deklaratu denean.

**27. artikulua.** Zehapenak eta zehapen prozedura.

Foru lege honetan ezarritako arau-hausteei aplikatu beharreko zehapenei dagokienez, eta orobat, erantzukizunen araubideari, eskumenari, zehapena ezartzeko prozedurari eta ondorioei eta arau-hausteen eta zehapenen preskripzioari dagokienez, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legean xedatutakoari jarraikiz jokatu da.

**Lehen xedapen gehigarria.** Museoak eta bilduma museografiko iraunkorrak babesteko araubidea.

Lege honen indarrez, Nafarroako Foru Komunitatearen titulartasunekoak ez diren eta aitortzen dituzten museoetako eta bilduma museografiko iraunkorretako bilduma osatzen duten ondasun higigarriak ondasun inbentariatu deklaratzeko, interes kulturalako ondasun deklaratzeko aukera galarazi gabe, Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen 14.2 artikuluan adierazitako salbuespenak salbuespen.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Museoen aitortpena.

Foru lege honen indarrez, museoaren aitortpena jaso dute Nafarroako Museoak, Jorge Oteiza Fundazioaren Museoak, Gustavo de Maeztu Museoak eta Arte Garaikideko Muñoz Sola Museoak.

**Hirugarren xedapen gehigarri berria.** Foru lege honen ebaluazioa.

Foru legeak indarra hartzen duenetik departamentu eskudunak haren betetzearen emaitzak ebaluatuko ditu, lau urtez behin, betetzen ari ote den zehazteko eta egokitzat jotzen diren lege eta erregelamendu mailako aldaketak proposatzeko. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari igorri beharko dizkio ebaluazioaren emaitzak, horri buruzko saio monografiko bat egin dezan.

**Lehen xedapen iragankorra.** Egun dauden museoaren eta bilduma museografiko iraunkorren aitortpen iragankorra.

Foru lege honek indarra hartzean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasunekoak ez diren museo eta bilduma museografiko iraunkorren titularrek aitortpen iragankorra eskatzen ahalko dute, foru lege honen 13. eta 14. artikuluetan ezarritako betebeharrak bat betetzen ez badute. Foru lege honek indarra hartu eta bost urteko epean behin betiko aitortpena lortzen ez badute, aitortpen iragankorra baliorik gabe gelditu da.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Museozentzako eta bilduma museografiko iraunkorrenzako diru-laguntzen araubide iragankorra.

Foru lege honek indarra hartu eta bost urteko epean, lehenengo xedapen iragankorrean aipatzen den aitorpen iragankorra jasotzen duten museoek eta bilduma museografiko iraunkorrei diru-laguntzak ematen ahalko zaizkie instalazioak edo ekipamenduak hobetu edo beste edozein inbertsio egiteko, haien helburua museoek edo bilduma museografiko iraunkorren behin betiko aitorpena lortzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzea bada.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Indargabetzea.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan eza-

rritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenetan lehena.** Erregelamendurak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuari eta museoek arloan eskumena duen departamentuko kontseilari titularri ahalmena ematen zaie foru lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren xedapenak eman ditzaten indarra hartu eta hurrengo hogeita lau hilabete epean.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Hirigintza eta etxebizitzaren arloan urgentziazko neurriak hartzeko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legea.**

### **AKATS ZUZENKETA**

Hirigintza eta etxebizitzaren arloan urgentziazko neurriak hartzeko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legean akatsak daudela ikusita –Foru Legea 2009ko ekainaren 15eko 73. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara– bidezkoa da ondoko zuzenketak egitea.

22. artikuluko bigarren lerrokadan, hauxe dio:

“..., hogeita hamalagarren xedapen gehigarria gehituko zaio...”

Honela behar du:

“..., hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria gehituko zaio...”

22. artikuluko hirugarren lerrokadan, hauxe dio:

“Hogeita hamalagarren xedapen gehigarria.”

Honela behar du:

“Hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria.”

Iruñean, 2009ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Foru Legea, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzkoa.**

### **AKATS ZUZENKETA**

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko Foru Legean akats bat dagoela ikusita –Foru Legea 2009ko ekainaren 18ko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman zen argitara– bidezkoa da ondoko zuzenketa egitea.

Bigarren xedapen gehigarrian, c) letran, hauxe dio:

“..., Balioen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1998 Legearen...”

Honela behar du:

“..., Balioen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen...”

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda



---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mendekotasuna duten pertsonen laguntzarako 2007ko eta 2008ko ekitaldietan gastatutako eta 2009ko ekitaldirako aurrekontuan sartutako zenbateko zehatzak ezar ditzan.**

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, jabeldura baten ondoriozkoa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita mendekotasuna duten pertsonen laguntzarako 2007ko eta 2008ko ekitaldietan gastatutako eta 2009ko ekitaldirako aurrekontuan sartutako zenbateko zehatzak ezar ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, 2009ko ekainaren 11n eginiko Osoko Bilkuran eztabaidaturiko jabelduraren ondorioz, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluen eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroa behartuta dago Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legean eta Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari

buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritako prestazioak ematera, eta horrek eskatzen du baita ere prestazio horiek gauzatzeko beharrezkoak diren finantzaketa-baliabideak defenditzea eta zorrotz mantentzea.

Nafarroako Parlamentuaren Erabakia, zeinaren bidez erretiratu baitzen bere garaian 39/2006 Legearen aurka aurkeztutako konstituziokontraotasuneko errekurtsioa, oinarritu zen alde aurretik Konpentsazio Batzarrean hartutako erabaki batean. Erabaki horren bidez Nafarroak Estatuari ematen dion ekarpen edo kupoaren gutxitze-prozeduraren bitartez, bermatuko zen Estatuak finantza-baliabideak jarriko zituela Estatu lege horren 9. artikuluko "bermatutako gutxieneko babes-mailan" sartuta zeuden prestazioetarako, bai eta lehen xedapen iragankorrean aurreikusitako "sistema abian jartzeko inbertsioetarako" ere.

Kompentsazio Batzarraren erabakia berretsi egin zen Hitzarmen Ekonomikoaren egokitzapean (48/2007 Legea). Gizarte Gaietako kontseilariak parte hartzen du Autonomiaren sistemarako eta Mendekotasuna eskuratzeko Lurralde Kontseiluaren bileretan, baina oraindik ez da sinatu bi aldeko hitzarmen berezirik mendekotasunaren sistemari dagokionez.

Hala ere, Estatuak Nafarroari ematen dion finantzaketaren zenbatekoak arestian aipatu hitzarmenak betetzeko beharko liritekeenak baino askoz txikiagoak dira. Hala, duela gutxi informatu zen Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran Estatuak ordaindutakoak prestazio horietan inbertitutakoaren % 7-9 egiten duela. Gaur egun, eta informazio horren arabera, aurreikusitako inbertsioa 825 milioi eurokoa da. Bestalde, prestazioen % 75, gutxi gorabehera, "bermatutako gutxieneko babes-mailari" dagozkio, eta, horren ondorioz, atzeman daiteke Nafarroa ez dela jasotzen ari

dagozkion ehunka milioi euro Hitzamenaren kontuaren urteroko likidazioetan.

Alde finantzario hori ez da unean uneko kontua; hori dela eta, ezinbestekoa da beharrezkoak diren ahalegin politikoak egitea, alde hori ez dadin finkatu eta berezko izaera ez dezan hartu.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2007an eta 2008an Mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako laguntzen arloan eta Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen kasu egiteko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritako "bermatutako gutxieneko babes-mailan" sartzen diren prestazioetan gastaturiko diruaren zenbatekoak zehaztu ditzan, bai eta 2009rako aurrekontuan aurreikusitakoa ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zehaz dezan 2007ko urtarrilaren 1etik 2008ko abenduaren 31ra eginiko inbertsioen zenbatekoa, bai eta "mendekotasunari aurre egiteko sistema pixkanaka ezartzeko" xedearekin 2009ko aurrekontuetan aurreikusitakoa ere, 39/2006 Legearen 9. eta 10. artikuluetan eta lehen xedapen iragankorrean aurreikusitakoaren arabera.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Estatuari ordaindu beharreko kupoari dagozkion zenbatekoak likidatzekoan, Hitzarmenean aurreikusitakoaren eta Lankidetzatza Batzarraren Erabakiaren bidez adostutakoaren arabera, zenbateko horiek ken daitezten Nafarroak Estatuari eman beharreko zenbatekotik.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro ere ekin diezaien sindikatuen eta Hezkuntza Departamentuaren arteko negoziazioei, 2008ko ekainaren 3an izenpetutako ituna garatzen eta betetzen lagunduko duen akordio bat lortze aldera.**

### *IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, jabeldura baten ondoriozkoa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berriro ere ekin diezaien sindikatuen eta Hezkuntza Departamentuaren arteko negoziazioei, 2008ko ekainaren 3an izenpetutako ituna garatzen eta betetzen lagunduko duen akordio bat lortze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, 2009ko ekainaren 11n eginiko Osoko Bilkuran Hezkuntza kontseilariak erantzundako eta eztabaidaturiko jabelduraren ondorioz, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Sindikatuak eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak 2007ko martxoan sinatu zuten hezkuntzaren arloko ituna urteetako negoziazioen emaitza izan zen eta laburbiltzen zuten Nafarroan hezkuntza publikorako aurrekontu dui-nak bermatzearen aldeko apustua. Gaur egungo kontseilariak bere egin zuen aipatu ituna legegintzaldiaren hasieran, eta itun hori betetzeko konpromisoa hartu zuen.

Ituna sinatu eta bi urte bete direnean, itunean ezarritako zenbait neurri garatu dira, baina orain-

dik ere itunaren atal batzuk garatu gabe daude. Hezkuntza kontseilariak 2009ko ekainaren 11ko Osoko Bilkuran azaldu zuen moduan, ez du asmorik itunaren 4. atala, Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen ordutegiari buruzkoa, betetzeko.

Itunaren atal hori garrantzitsua da, baina beste atal batzuk ere, orain arte garatu ez direnak, garrantzitsuak dira. Atal horiek dira Lanbide Heziketarekin, irakasle taldeen egonkortasunarekin, ikastetxe sarearen modernizazioarekin eta dotazio eta balibideen aldetiko hobekuntzarekin zerikusia dutenak.

Ituna aplikatzen hasi eta lehenbiziko bi urteetan, matrikulen hazkunde nabarmena izan da sare publikoan.

Haur eta Lehen Hezkuntzan ikasle kopurua % 11 handitu da, eta berandu sartzen diren ikasleen kopurua izan da gehien hazi dena. Hazkunde horrekin batera, ez da ikastetxe berrien plagintza egokia egin, eta horren ondorioz ikastetxe batzuk gainezka daude eta hezkuntza-eremuak galdu dira.

2009ko aurrekontuetan, Hezkuntzaren arloko Itunean hala jasotzen delako lehentasunezkoak izan behar zuten zenbait kontusailletako diru kopurua murriztu egin da, esate baterako:

Zentroetako ekipamenduak: % 44

Ikastetxeetako funtzionamendu gastuak: % 7,5

Teknologia berrietarako baliabideak: % 26

Lanbide Heziketa: % 22

Irakaskuntzarako aurrekontu duinik ez badugu, zerbitzu horren eginkizuna, hezkuntza sistemaren ardatz nagusia eta ikasle behartsu gehienen integrazioaren bermea den aldetik, porrot egiteko zorian dago.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berriro ere ekin diezaien sindikatuen eta Hezkuntza Departamentuaren arteko negoziazioei, 2008ko ekainaren 3an izenpetutako ituna garatzen eta betetzen lagunduko duen akordio bat lortze aldera.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Parlamentura kreditu berezi bat emateari buruzko lege proiektu bat igor dezan, irakurketa bakarrean izapidetzeko. Bertan sartu beharko da Nafarroan Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Ituna sinatu zuten aldeek egoki irizten dioten kopurua, 2008an eginiko hitzarmenaren arabera konpondu ez den arazoa behar bezala konpondu ahal izateko.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berma dezan 2010eko aurrekontuetan jasoko direla Itunean jasota dauden eta bete gabe dauden neurriak betetzeko beharrezkoak diren kontusailak.

Iruñean, 2009ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur nafarren ikusmen arazoak hautemateari buruzko neurri jakin batzuk har ditzan.**

### *OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Ana Figueras Castellano andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur nafarren ikusmen arazoak hautemateari buruzko neurri jakin batzuk har ditzan."

Legebiltzarreko Osasun Batzordeakak 2009ko ekainaren 16an egindako bileran, erabaki zuen

aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko maiatzaren 22ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Adierazpen instituzionala, polizia nazionaleko inspektore Eduardo Antonio Puelles García jaunaren erailketaren erabateko gaitzespena adierazteko.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2009ko ekainaren 19an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Gaur goizean ETA talde terroristak Arrigorriagan (Bizkaia) polizia nazionaleko inspektore Eduardo Antonio Puelles García jauna erail duela eta, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

Lehena: Erabateko gaitzespena adieraztea, ETA talde terroristak Arrigorriagan (Bizkaia) bonba itsatsi baten bidez polizia nazionaleko inspektore Eduardo Antonio Puelles García jauna erail duela eta.

Bigarrena: Eduardo Antonio Puelles García jaunaren familiari eta Polizia Nazionaleko kideei elkartasuna eta adiskidetasuna agertzea. Halaber, Nafarroako Parlamentuak berriro ere babesak agertu nahi die Estatuko segurtasun indar eta kidegoei, indarkeria terroristaren aurka eta herritarren eskubideen eta askatasunen defentsaren alde etengabe egiten duten lanarengatik.

Hirugarrena: Parlamentuak adierazten du ezinebestekoa dela indar politikoen eta gizarte osoa-

ren batasuna mantentzea ETArekin amaitu ahal izateko, eta, hala, bere erailketekin eta demokraziaren aurkako estortsioarekin amaitzeko. Legearen indarraren, segurtasun indar eta kidegoen ekintzaren eta gizartearen gehiengoaren babesak ematen duen zilegitasunaren eraginez, ETAK espetxearekin ordainduko du eraginiko mina, eta behin betiko desagertuko da.

Laugarrena: Irrotasunez diogu ETAK ez duela inoiz lortuko gizarte demokratikoa eta Zuzenbide Estatua bere esanetara jartzea, eta erakundeek, alderdi politikoeekin eta gizarte osoarekin batera, herritar guztien eskubideak eta askatasunak defendatuko dituztela indarkeria terroristaren aurrean.

Bosgarrena: Nafarroako Parlamentuak dei egiten die herritar guztiei Eduardo Antonio Puelles García jaunaren erailketa gaitzesteko antolatzen diren manifestazio publikoak babes ditzaten eta horietan parte har dezaten."

Iruñean, 2009ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, erregaiei eta tabakoari buruzko zergen igoerak Nafarroako Foru Komunitatean izanen duen eraginari buruzkoa.**

*JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, erregaiei eta tabakoari buruzko zergen igoerak Nafarroako Foru Komunitatean izanen duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroa-

ko Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ahozko galdera:

Ekainaren 12an, Ministroen Kontseiluak eta ekainaren 17an, Politika Fiskal eta Finantzarioaren Kontseiluak zenbait erabaki hartu zituzten erregaien eta tabakoaren zergak igotzeari buruz, bai eta autonomia erkidegoen zorpetzeko aukerari buruz ere. Estatu mailan hartutako erabaki horiek direla eta, eta –kontuan hartu gabe alor fiskalean dugun autonomia maila eta Estatuarekin dugun harreman aldebikoa zor publikoaren mailari dagokionez–, hau galdetu nahi diogu Gobernuari:

Zer neurritan eraginen diote bi erabaki horiek Nafarroako Foru Komunitateari, dirusarrerak eta zor publikoa jaulkitzeko maila handitzeari dagokionez? Zertarako erabiliko ditu Gobernuak dirusarrera gehigarri horiek eta jaulkitako zor gehigarria, hala eginez gero?

Iruñean, 2009ko ekainaren 18an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

---

## **Galdera, N-121-A errepideko lanak amaitzeko datari buruzkoa.**

*KOLDO AMEZKETA DÍAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Amezketa Díaz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, N-121-A errepideko lanak amaitzeko datari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Amezketa Díazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, ahoz erantzuteko honako ezohiko galdera aurkeztu du, ekainaren 25erako eta 26rako deitutako Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuako Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilari Alba Cuadrado andreak erantzun dezan:

Aurreko egunetan, Herri Lan Departamentutik zetozen zenbait informazioen berri izan dugu prentsaren bidez; horien arabera, atzerapen gehiago izanen dira N-121-A errepideko lanak amaitzerakoan.

Kontseilari andreak eman al dezake aipatu lanen amaiera-datarik? Izan ere, kontratuaren ara-

bera, iragan martxoaren 30erako amaitu behar ziren. Edota gai horri buruzko ezjakintasuna 2008ko ekainean zuenaren adinekoa da? Izan ere, orduan esan zuen, parlamentariak obretara eginitako bisita batean, lanak aurreikusitako datan amaituko zirela, nahiz eta esan zitzaion –baita agiri bidez erakutsi ere– ezinezkoa zela kontratu-hitzarmen hura betetzea. Edo, beharbada, bazterreko arazoak daudela argudiatzen jarraituko du atzerapenak justifikatzeko, departamentu horrek duela gutxi prentsari emandako informazioan egiten den moduan, nahiz eta atzerapenak ez duten zerikusirik proiektuaren gabeziak direla-eta –eta, horrenbestez, departamentuaren ardurapekoak dira– sorturiko bazterreko arazoekin?

Iruñean, 2009ko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Koldo Amezketa Díaz

---

**Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak beharrezkoa ikusten ote duen parte hartzea hondakinak tratatzen duten enpresetan hondakin kudeaketa kontrolatu ahal izateko.**

**ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak beharrezkoa ikusten ote duen parte hartzea hondakinak tratatzen duten enpresetan hondakin kudeaketa kontrolatu ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasuneko

ondoko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena:

Caparrosen, Alesbes eta Martzillarekin muga egiten duen tokian, esnea ekoizteko behien haztegi handi bat eraikitzen ari da.

Abeletxe horretan sortzen diren hondakinak eta beste toki batzuetako SANDACH motako hondakinak biometanizazio planta batean tratatuko dira. Planta hori toki berean eginen da, eta proiektu beraren zati da.

Halako hondakinaren tratamendua zaila eta arriskutsua izan daiteke, behar bezala ez bada egiten.

Hori dela eta, hau jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak uste du beharrezkoa dela enpresa horietan parte hartzea, akzioak erosiz, Nafarroako hondakin kudeaketa kontrolatu ahal izateko?

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Lan-taldea, Nafarroako Foru Komunitateko bide publikoak bizikletek erabiltzeko egokitzea aztertzea.**

### *BARNE-FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 113. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen "Nafarroako Foru Komunitateko bide publikoak bizikletek erabiltzeko egokitzea aztertze lan-taldearen barne-funtzionamendurako arauak", zeinak berak lan-taldeak onetsi baitzuten 2009ko ekainaren 22an eginiko bilkuran. Hona testua:

**Lehena.-** Nafarroako Foru Komunitateko bide publikoak bizikletek erabiltzeko egokitzea aztertze lan-taldearen helburua da txosten bat prestatzea, non jasoko baitira toki entitateen bide publikoak eta Nafarroako Foru Komunitateko errepideak bizikleten erabilerarako egokitze beharrezkoak jotzen diren proposamen, ideia eta beharrak.

Behin txostena eginda, Legebiltzarreko Mahaiari igorriko zaio boto partikularrekin batera, aurkeztuko balira, eta hark Batzordeko kideei helaraziko die, eztabaidatu eta bozkatzeko.

**Bigarrena.-** Horra lan-taldea osatuko duten foru parlamentarien zerrenda:

Luis M.<sup>a</sup> Valero Erro jauna (UPN).

Ordezkoa: Faustino León Chivite jauna.

Txentxo Koldo Amezketa Díaz jauna (NaBai)

Ordezkoa: Aitor Etxarri Pellejero jauna

José M.<sup>a</sup> Vázquez Royo jauna (SPN)

Ordezkoa: Juan José Lizarbe Baztán jauna.

José Andrés Burguete Torres jauna (CDN)

Ordezkoa: Juan Cruz Alli Aranguren jauna.

Ion Erro Armendáriz jauna (IUN-NEB).

Ordezkoa: Ana Figueras Castellano andrea.

**Hirugarrena.-** Lan-taldeak lehendakaria hautatu du, eta hura ez badago lan-taldearen beste kide bat aritu ahalko da bere ordez. Lan-taldeari laguntzen dion legelaria izanen da lan-taldeko idazkaria, eta, kasua bada, haren ordez arituko dena.

**Laugarrena.-** Lan-taldeak boto ponderatuen sistemaren bidez hartuko ditu erabakiak. Horrela, lan-taldeko kide bakoitzak bere parlamentu-taldeak edo foru parlamentarien elkarteak zenbat kide dituen, horrenbeste boto edukiko ditu.

**Bosgarrena.-** Lan-taldeak laguntza eskatu ahalko dio Nafarroako Gobernuari, eta, Legebiltzarreko Lehendakaritzaren bidez, kargu eta funtzionario eskudunak lan-taldera etor daitezen eskatu ahalko du, bai eta beharrezkoak diren txostenak egin daitezen ere. Orobat eskatu ahalko du arlo horretako aditu batzuk ere etor daitezen.

**Seigarrena.-** Lan-taldeak lan egiteko plana ezarriko du, eta lan-taldearen lanak behar bezala egiteko beharrezkotzat jotzen dituen agerraldi eta jarduerak finkatuko ditu. Plan hori Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraziko dio.

**Zazpigarrena.-** Azterlana egiteko epea 2010eko otsailaren 28an bukatuko da.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

